

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken data	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"><li>Guztira, 21.067 langabe erregistratu dira abenduan. BAIren arabera, langabezia-tasa % 11,63koa da laugarren hiruhilekoan.</li><li>Afiliatutako biztanleek -% 0,1 egin dute behera azaroarekin alderatuta, baina urtebetean 6.075 enplegu irabazi dira. Erregistratutako kontratuak % 9,2 igo dira urtetik urtera.</li><li>Azalera handietako salmentek urtetik urterako -% 1,2ko beherakada izan dute abenduan.</li><li>Hiriko hoteletan ostatu hartu duten turisten batez besteko egonaldiak gora egin du. Abenduan sarrerak jaitsi egin dira eta ostatu-gauak igo.</li><li>2024ko laugarren hiruhilekoan 212 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, hau da, 2023ko aldi berean baino -% 4,9 gutxiago.</li><li>Bilboko aireportuak abenduan 493.080 bidaiari erregistratu ditu, 2023ko abenduan baino 22.465 gehiago.</li><li>Bilboko Portuan 2,5 milioi tonako trafikoa erregistratu da abenduan, aurreko urteko hil berean baino -% 3,0 gutxiago.</li></ul>	<p><b>Lan-merkatua</b></p> <p><b>Afiliatuak</b> (kop.) 199.081 -0,1* Abe.</p> <p><b>Erregistratutako langabeak</b> (kop.) 21.067 -0,9* Abe.</p> <p><b>Langabezia-tasa</b> (BAI) 11,63 3,12* 2024ko 4. HH</p> <p><b>Erregistratutako kontratuak</b> 11.101 9,2 Abe.</p> <p><b>Merkataritza</b></p> <p><b>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea</b> (2021. urtea = 100eko oinarria) 125,6 -1,2 Abe.</p> <p><b>Turismoa</b></p> <p><b>Bidaiarien sarrera</b> (kop.) 79.542 -5,1 Abe.</p> <p><b>Ostatu-gauak</b> (kop.) 153.965 0,1 Abe.</p> <p><b>Ekonomia eta enpresa</b></p> <p><b>Sortutako merkataritza-sozietateak</b> 212 -4,9 2024ko 4. HH</p> <p><b>Desegindako merkataritza-sozietateak</b> 110 17,0 2024ko 4. HH</p> <p><b>Garraioa</b></p> <p><b>Bidaiarien aireko garraioa</b> (kop.) 493.080 4,8 Abe.</p> <p><b>Salgaien itsas garraioa</b> (milioi tona) 2,5 -3,0 Abe.</p>			

## DATU BAT

**% 11,63**

Langabezia-tasa (BAI)

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Abenduan 186 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hil artean  $-0,9\%$  gutxiago, eta 21.067 langabe daude udalerrian.

Emakumeen artean langabezia jaitsi egin da; gizonezkoen artean, aldiz, igo egin da,  $-1,9\%$  eta  $+0,4\%$  hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 223 emakume langabe gutxiago eta 37 gizon langabe gehiago zeuden.

Adin-tarteen arabera, langabeziak behera egin du gazteenen artean  $-5,5\%$  (108 gutxiago); 25 eta 44 urte artekoen taldean  $-1,4\%$  jaitsi da (107 gutxiago). 45 urte eta gehiagoko taldean gora egin du  $+0,2\%$  (29 langabe gehiago daude).

Industrian izan ezik ( $+2,6\%$  eta 37 langabe gehiago), langabeziak behera egin du sektore guztietan: Zerbitzuetan  $-1,0\%$  (148 gutxiago), Lehen Sektorean  $-1,0\%$  (-4) eta Eraikuntzan  $-0,1\%$  (-1). Behera egin du baita ere langabezian egonda lehenengo lanbidea bilatzen ari direnen artean ( $-2,1\%$  eta 70 langabe gutxiago).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa  $0,6\%$  murriztu da aurreko hilaren aldean. Madrilen eta Sevillan erregistratu da beherakadarik handiena,  $-1,4\%$  bi hirietan. Bartzelonan eta Valentzian  $0,7\%$ ko igoera erregistratu da, bi kasuetan.

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabezia  $-0,8\%$  jaitsi da. Langabeziak behera egin du Donostian ( $-1,5\%$ ), Iruñean ( $-0,9\%$ ) eta Gasteizen ( $-0,5\%$ ).

Langabeziak behera egin du EAEn ( $-0,48\%$ ) eta lurraldeka: Bizkaian behera egin du  $-0,7\%$  eta Gipuzkoan  $-0,36\%$ . Araban soilik igo da  $0,19\%$ .

**2024. urteko balantzea** Bilbok 2023an baino 181 langabe gehiagorekin amaitu du urtea ( $+0,9\%$ ). Urteko balantzean, langabeziak gora egin du gehiago emakumeen artean gizonen artean baino ( $1,0\%$  eta  $0,7\%$ , hurrenez hurren).

Sektoreek modu desberdinean jokatu dute: Langabeziak gora egin du Zerbitzuetan (148 langabe gehiago,  $1,0\%$ ) eta Lehen Sektorean (11 gehiago,  $2,8\%$ ); Eraikuntzan murriztu da (99 gutxiago,  $-7,1\%$ ) eta Industrian (34 gutxiago,  $-2,3\%$ ). Aurretik enplegurik izan ez dutenen kopuruak gora egin du, kasu honetan gehiago 155 izan dira ( $5,1\%$ ).

#### Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko  $\Delta$

Abendua	21.067 pertsona
	$0,9\%$ ▼
Emakumeak	$1,9\%$ ▼
Gizonak	$0,4\%$ ▲

#### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

Bilbo	$0,9\%$ ▼
G-5	$0,6\%$ ▼
G-3	$0,8\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Afiliazioa

Abenduaren amaieran, Bilboko enpresetan 199.081 afiliatu zeuden, hau da, azaroan baino 103 enplegu gutxiago (-% 0,1 gehiago).

Araubideen arabera, Orokorrak 91 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean, eta Langile Autonomoen Araubide Bereziak 38 afiliazio (-% 0,1 eta -% 0,2 gutxiago, hurrenez hurren). Etxekoan 9 enplegu irabazi dira (% 0,1) eta Bereziatan (nekazaritza eta itsasoa) 17 enplegu (+% 2,5).

Sektoreen arabera: Gora egin du Zerbitzuetan (68 afiliatu gehiago, % 0,0) eta Lehen Sektorean (7 gehiago, % 3,0); behera egin du Industrian (100 enplegu gutxiago, -% 1,1) eta Eraikuntzan (78 gutxiago, -% 0,8).

Zerbitzuetan, kontuan hartutako adarrek portaera desberdina izan dute. Datu absolutuetan, igoerak nabarmentzen dira Garraioan eta biltegietan, Osasunean, Gizarte Zerbitzuetan, Administrazio publikoan eta Merkataritzan (447, 420, 346, 294 eta 133 gehiago, hurrenez hurren). Jaitsiera esanguratsuak egon dira Administrazio-jardueretan, Hezkuntza eta Informazioan eta Komunikazioetan (544, 405 eta 251 enplegu gutxiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,7ko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Bartzelonak izan du atzerakadarik handiena (-% 1,2) eta Madrilak txikiena (-% 0,4).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, -% 1,2 jaitsi da. Behera egin du Gasteizen eta Donostian (-% 0,8 bi kasuetan) eta Iruñean (-% 2,0).

EAEan, oro har, afiliatuak -% 0,5 igo dira hilabete artean. Lurraldeei dagokionez, denetan egin du behera afiliazioak. Araban -% 0,9, Gipuzkoan -% 0,6 eta Bizkaian -% 0,3.

**2024. urteko balantzea** Hiriko enpresetan aurreko urtean baino afiliatu gehiagorekin itxi da 2024. urtea. Hain zuzen ere, igoera % 3,1ekoa izan da, hau da, 6.075 enplegu gehiago egon dira.

Araubide Orokorra % 3,8 hazi da (6.165 afiliatu gehiago) eta Autonomoen Araubide Berezia % 0,6 (139 gehiago). Afiliazioa galdu dute Etxeko Langileen Sistema Bereziak (-%3,0) (192 gutxiago) eta Bestelakoan epigrafeak (-%5) (37 gutxiago).

Sektoreka, Zerbitzuetan 5.901 afiliatu gehiago erregistratu dira (% 3,4); Industrian 256 afiliatu galdu dira (% 2,9), Eraikuntzan 69 (-% 0,7) eta Lehen Sektorean 13 (-% 5,2).

Zerbitzuetan, enplegu gehien hazten diren adarrak honako hauek dira: Merkataritza, Osasuna, Garraioa eta biltegiak, Ostalaritza, Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta Hezkuntza.

### Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Abendua</b>	<b>199.081 pertsona</b>
	% 0,1 ▼
Araubide orokorra	% 0,1 ▼
Autonomoak	% 0,2 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,1 ▲
Beste batzuk	% 2,5 ▲

### Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Abendua</b>	<b>199.081 pertsona</b>
	% 0,1 ▼
Zerbitzuak	% 0,0 =
Eraikuntza	% 0,8 ▼
Industria	% 1,1 ▼
Lehen sektorea	% 3,0 ▲

### Benchmarkina

Hilabete arteko  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 0,1 ▼
<b>G-5</b>	% 0,7 ▼
<b>G-3</b>	% 1,2 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## Kontratuak

Abenduan 11.101 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 9,2 eta 937 kontratu gehiago. Urtetik urtera areagotu egin dira gizonen eta emakumeen egindako kontratuak: 246 eta 691 gehiago, hurrenez hurren.

Kontratuek kontuan hartutako adin-talde guztietan egin dute gora. Gazteen taldean % 7,8 (193 kontratu gehiago); 25-44 urtekoen taldean % 10,2 (491 gehiago); 45 urte eta gehiagoko taldean % 8,8 (253 gehiago). Erregistratutako kontratuen % 47,7 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.298 kontratu), % 24,0, berriz, gazteenei (2.659) eta gainerako % 28,3a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.144).

Zerbitzuetan soilik izan dute gorakada kontratuak (% 10,2, hau da, 968 gehiago). Jaitsi egin dira Eraikuntzan (-% 2,9 eta 8 gutxiago), Industrian (-% 5,5 eta 20 gutxiago) eta Lehen Sektorean (-% 37,5 eta 3 gutxiago). Abenduan aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 78,4 izan dira. 8.042 pertsona kontratatu dira eta % 56,2 emakumeak dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,38 kontratu.

**2024. urteko balantzea** Urtearen amaieran 142.216 kontratu erregistratu dira, 2023. urtean baino 4.965 kontratu gehiago (% 3,6). Guztira, 64.426 pertsona kontratatu dira, 2023an baino 460 gehiago, hau da, % 0,7 gehiago. Sexuen arabera, emakumeen 77.767 kontratu egin zaizkie (2023. urtean baino % 1,1 gehiago) eta gizonen 64.449 kontratu (% 6,8).

Nabarmentzekoa da segmentu gazteena, kontratu-kopuruan igoerarik handiena izan duena (% 13,0). Gora egin dute kontratuak Zerbitzuetan eta Industrian (% 3,8 eta % 5,5 gehiago, hurrenez hurren). 2024n erregistratutako kontratuen % 24 mugagabeak dira.

## Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta

Laugarren hiruhilekoan, BAI biztanleria aktiboaren hazkunde handia utzi du, gehien bat biztanleria langabeen eragin diona.

Horiek horrela, Bilbon aurreko hiruhilekoan baino 6.200 langabe gehiago daude eta 700 langabe gutxiago.

Biztanleria ez-aktiboa 2.200 pertsonatan murriztu da.

Laugarren hiruhilekoan langabeen kopuruak behera egin du (-% 0,4). Beherakada hori gizonen artean soilik gertatu da (gizonen 2.800 langabe gutxiago daude, eta 2.100 emakume langabe gehiago, urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta).

Enplegu-tasak zertxobait behera egin du -0.77 puntu portzentualetan eta, beraz, % 51,19koa da.

### Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Abendua</b>	<b>11.101 kontratu</b>
	<b>% 9,2 ▲</b>
Emakumeak	% 12,2 ▲
Gizonak	% 5,5 ▲
Lehen sektorea	% 37,5 ▼
Industria	% 5,5 ▼
Eraikuntza	% 2,9 ▼
Zerbitzuak	% 10,2 ▲
Kontratutako pertsonak	% 6,1 ▲

### Biztanle landunei egindako inkesta BAI

- IV. hiruhilekoa

$\Delta$  Hiruhileko artekoa

<b>Langabezia-tasa</b>	<b>% 11,63</b>
	<b>3,12 pp ▲</b>
Emakumeak	3,33 pp ▲
Gizonak	2,89 pp ▲
<b>Biztanleria aktiboa</b>	<b>% 3,1 ▲</b>
<b>Biztanleria landuna</b>	<b>% 0,4 ▼</b>
<b>Biztanleria langabetua</b>	<b>% 41,3 ▲</b>

Sektoreen arabera: Zerbitzuetan 2.600 enplegu gutxiago daude, Industrian 900 landun gehiago eta Eraikuntzan beste 800 gehiago egon dira hiruhileko honetan.

Langabeek gora egin dute (6.200 pertsona gehiago); hau da, aurreko hiruhilekoko 15,0 milatik 21,2 milara igaro dira urteko laugarren hiruhilekoan. Emakumeen artean gehiago igo da langabezia.

Langabezia-tasak gora egin du 3.12 puntu portzentaletan eta, beraz, % 11,63koa da. Kasu honetan ere, emaitza okerragoa da emakumeentzat.

**2024. urteko balantzea.** 2024a 2022ko parametroetara itzuli da, 2023ko ezohiko jardunaren ondoren.

Urteko batez bestekoan, Bilbok 2024. urtea itxi du landunen % 3,5eko igoerarekin, baina baita langabeen hazkundearekin ere (3.550 langabe gehiago).

Urteko langabezia-tasa % 9,95era igo da, 2023. urtearekin alderatuta (% 8,35).

## MERKATARITZA

### Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek abenduan -% 1,2 egin dute behera urte batetik bestera, lan-egutegi homogoneoari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 2,2 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 1,9 egin dute atzera 2023ko abenduarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek -% 0,1eko beherakada izan dute.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 1,1eko gorakada izan du.

Soilik Araban egin dute gora azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek (-% 0,5). Jaitsi egin dira -% 0,5 Gipuzkoan eta -% 0,7 EAE osoan.

**2024. urteko balantzea.** 2024ko hamabi hilabeteetan, Bizkaiko saltoki handietako salmentek gora egin dute % 2,4an, 2023. urtearen aldean.

Aldi honetan, jatekoen salmentek % 0,5 egin dute gora, eta gainerako produktuenak -% 0,2 egin dute behera. Landunen kopurua % 1,1 areagotu da.

Lurraldeka, 2023. urtearekin alderatuta, saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentak % 2,4 igo dira Araban, Gipuzkoan eta EAE osoan.

#### Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaia

Urte artekoa Δ

**Abendua** 125,6

**Salmenta-indizea** % 1,2 ▼

- Elikadura % 1,9 ▼

- Gainerako produktuak % 0,1 ▼

**Landunak** % 1,1 ▲

## TURISMOA

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 153.965 ostatu-gau erregistratu dira abenduan, hau da, % 0,1eko hazkundea egon da urtetik urtera (176 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak -% 5,1 egin du behera. Estatuko bidaiarien artean behera egin du hirian duten presentziak (-% 7,4), baita atzerritarren artean ere (urtetik urtera -% 0,2 jaisi direnak), eta hilabete honetan hoteletan sartu diren bidaiari guztien % 33 izan dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 22,6), gero EAEkoak (% 21,8), Kataluniakoak (% 11,1) eta Andaluziakoak (% 5,7). Atzerriko bidaiariei dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 20,4), Italia (% 8,3), Alemania (% 8,0), Portugal (% 7,0) eta AEB (% 6,9).

Gora egin du batez besteko egonaldiak eta bidaiari bakoitzeko 1,94 ostatu-gau izan dira.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 52,1 eurokoak dira eta -% 3,1 murriztu dira Bestalde, hoteletako batez besteko tarifak 92,2 eurokoak dira (+% 2,8).

**Apartamentu turistikoaren establezimenduetan** 9.390 sarrera erregistratu dituzte guztira abenduan, hau da, % 52,0 gehiago eta 21.362 gaualdi gehiago, eta 2023ko abenduan baino % 49,4 gehiago.

**Oro har**, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, abenduan 88.932 sarrera eta 175.327 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera -% 1,2 eta +% 4,3, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 5,0 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 6,5), Donostian (% 0,1) eta Iruñean (% 17,4).

EAE osoan beherakada -% 0,6koa izan da aurreko urteko abenduaren aldean. Lurraldeen arabera, Bizkaian -% 4,0 egin dute behera ostatu-gauek eta gora egin dute Gipuzkoan (% 0,8) eta Araban (% 6,1).

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek -% 0,1eko beherakada izan dute. Ostatu-gauek behera egin dute taldeko hiriburu guztietan, Bartzelonan (+% 1,9) eta Madrilen (% 1,5) izan ezik. Valentziak izan du beherakadarik handiena: -% 8,9.

### Hotel establezimenduetan

Urte artekoa  $\Delta$

#### Abendua

Ostatu-gauak	153.965 ostatu-gau
	% 0,1 $\blacktriangle$
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 1,7 $\blacktriangledown$
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 5,2 $\blacktriangle$

Bidaiarien sarrerak	79.542 sarrera
	% 5,1 $\blacktriangledown$
Nazionalak	% 7,4 $\blacktriangledown$
Atzerritarrak	% 0,2 $\blacktriangledown$

Batez besteko egonaldia	1,94 ostatu-gau/bidaiari
	% 6,01 $\blacktriangle$

### Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 2,8 $\blacktriangle$
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 3,1 $\blacktriangledown$

### Apartamentu turistikoak

Urte artekoa  $\Delta$

#### Abendua

Ostatu-gauak	21.362 ostatu-gau
	% 49,4 $\blacktriangle$
Bidaiarien sarrerak	9.390 sarrera
	% 52,0 $\blacktriangle$

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitatez osatutako establezimenduetan, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

Bilbo	% 0,1 $\blacktriangle$
G-5	% 0,1 $\blacktriangledown$
G-3	% 5,0 $\blacktriangle$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## 2024. urteko balantzea.

**Hotel establezimenduetako jarduera turistikoak** 2.211.004 gaualdi eta 1.128.666 bidaiari-sarrerarekin itxi du 2024. urtea (2023an baino  $-1,0$  eta  $-2,0$  gutxiago, hurrenez hurren).

Turista atzerritarrak hiriko hoteletako turisten sarreren % 52 izan dira, eta 2023ko erregistroa % 1,0ean gainditu dute. Atzerritik etorritako bidaiarien artean, Frantziatik, Alemaniatik eta AEBetatik etorritakoak nabarmentzen dira. Eta estatutik datozenen artean, Madrilgoak, EAekoak, Kataluniakoak eta Andaluziakoak.

Batez besteko egonaldia 1,96 ostatu-gauekoa da bidaiari bakoitzeko, 2023an lortutakoa baino altuagoa (1,94).

**Apartamentu turistikoaren establezimenduek** 111.341 sarrera erregistratu dituzte guztira 2024. urtean, hau da, % 26,0 gehiago eta 254.029 gaualdi gehiago, eta 2023ko urrian baino % 19,4 gehiago.

**Oro har**, hotel establezimenduetako eta apartamentu turistikoetako jarduera batuta, 2024an 1.240.007 sarrera eta 2.465.033 gaualdi egon dira hirian, hau da, aurreko urteko bisitari-kopuruari eutsi zaio (+285 eta % 0,0) eta 18.726 gau gehiago igaro dira hirian (+% 0,8 urte artean).

## ENPRESAK

### Merkataritza-sozietate berriak

2024ko laugarren hiruhilekoan Bilbon 212 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek % 4,9ko igoera dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (11 sozietate gutxiago datu absolutuetan).

Sektoreka, Zerbitzuetan 174 sozietate sortu dira, 2023ko azken hiruhilekoan baino zazpi gutxiago; Eraikuntzan 29, Industrian 8 eta Lehen Sektorean bat (4 gehiago, 9 gutxiago eta bat gehiago, hurrenez hurren).

Laugarren hiruhilekoan 110 sozietate desegin dira, aurreko urteko hiruhileko berean baino 16 gehiago. Horietatik % 88,2 zerbitzuen sektorekoak dira, % 8,2 eraikuntzakoak eta % 3,6 industriakoak.

#### Merkataritza sozietateak

Δ Urte artekoa

#### IV Hiruhilekoa

Sortutakoak % 4,9 ▼

Desegindakoak % 17,0 ▲

**2024. urteko balantzea** 2024. urtearen amaieran, guztira 864 sozietate berri sortu dira hirian, hau da, urtetik urtera 36 gehiago (% 4,3).

Sektoreka, Zerbitzuetan eta Eraikuntzan egin du gora urtetik urtera sortutako sozietateen kopuruak, 721 (40 gehiago) eta 92 (+7 gehiago), hurrenez hurren. Industrian 50 sortu dira (-12), eta Lehen Sektorean bat sortu da.

2024. urtean guztira 394 sozietate desegin dira, 2023. urtean baino % 24,3 gehiago. Zerbitzuen sektoreari % 82,5 dagokio.

## GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

### Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuak 493.080 bidaiari izan ditu abenduan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 4,8 eta 22.465 bidaiari gehiago. Emaiza horiei esker aireportuak abenduko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Hegaldi nazionaletako bidaiarien kopuruak gora egin du, izan ere, 8.712 bidaiari gehiago izan dira (% 3,0); hala ere, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du % 7,1 eta 12.882 bidaiari gehiago izan dira.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.971 izan dira (% 5,2), eta garraiatutako salgaiak igo dira (% 27,5).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 7,7ko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Sevillan izan da hazkunderik nabarmenena (% 12,1) eta Bartzelona baxuena (% 5,2).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, -% 10,9 gutxitu da. Gora egin du Gasteizen (% 4,2) eta behera Donostian (-% 20,9) eta Iruñean (-% 5,8).

**2024. urteko balantzea.** Bilbok % 7,0ko igoerarekin itxi du 2024a, aurreko urtearekin alderatuta, eta 6.777.267 bidaiari izan ditu, zifra absolutuetan 2023an baino 440.826 bidaiari gehiago, eta seriea hasi zenetik urteko daturik onena da.

2023. urtearekin alderatuta, merkataritza-hegaldi nazionaletako bidaiariak % 3,4 egin dute gora, eta nazioarteko hegaldietakoek % 12,3 (128.221 eta 312.709 gehiago, hurrenez hurren).

Garraiatutako salgaien urteko datuari dagokionez % 23,5 egin dute gora, eta operatutako hegaldiek % 2,1.

### Aireko garraioa

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Abendua</b>	493.080 bidaiari
	% 4,8 $\blacktriangle$
Nazionalak	% 3,0 $\blacktriangle$
Nazioartekoak	% 7,1 $\blacktriangle$
<b>Salgaiak (kg)</b>	% 27,5 $\blacktriangle$
<b>Hegaldiak</b>	% 5,2 $\blacktriangle$

### Benchmarkina

Urte artekoa  $\Delta$

<b>Bilbo</b>	% 4,8 $\blacktriangle$
<b>G-5</b>	% 7,7 $\blacktriangle$
<b>G-3</b>	% 10,9 $\blacktriangledown$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea



## Portuko garraioa

Bilboko Portuak 2,5 milioi tonako trafikoa izan zuen abenduan, hau da, -% 3,0 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan abenduan kudeatutako salgaien % 56,9 izan da, eta urte arteko % 14,8ko jaitsiera izan du. Solteko gaien trafikoa % 15,9 igo da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra % 20,2.

Abenduan itsas bidaia bat erregistratu da.

**2024. urteko balantzea.** 2024. urtea amaitzeko, 2023. urtearekin alderatuta, % 5,0ko gorakada egon da portuko trafikoa, eta garraiatutako 34,6 milioi tonatara iritsi da.

Solteko salgai likidoen trafikoa, % 4,5eko gorakada egon da urtetik urtera. Solteko gaien trafikoa % 10,1 igo da eta salgai orokorra % 3,8.

2024. urtean 137.477 itsas bidaiari eta 81 itsas bidaia erregistratu dira.

### Itsas garraioa Abendua

Δ Urte artekoa

<b>Portuko trafikoa</b>	2,5 milioi tona % 3,0 ▼
<b>Bidaiarien garraioa</b>	6.151 bidaiari ▲
<b>Itsas bidaiariak (kop.)</b>	925 ▲

## ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.067	-0,9*	2024ko abendua
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	199.081	-0,1*	2024ko abendua
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	11.101	9,2	2024ko abendua
Biztanleria aktiboa (milakotan)	182,1	3,1*	2024ko IV. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	160,9	-0,4*	2024ko IV. HH
Langabeak (milakotan)	21,2	41,3*	2024ko IV. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	11,63	3,12* pp	2024ko IV. HH
<b>Merkataritza</b>			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	117,3	0,7*	2024ko abendua
Afiliatuak**	20.856	0,6*	2024ko abendua
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	109,4	4,2	2024ko III. HH
Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan	125,6	-1,2	2024ko abendua
<b>Turismoa</b>			
Bidaerien sarrera	79.542	-5,1	2024ko abendua
Ostatu-gauak	153.965	0,1	2024ko abendua
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,94	6,01	2024ko abendua
Hoteletako okupazio-maila (%)	48,9	-3,1 p.p.	2024ko abendua
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	52,13	-3,1	2024ko abendua
<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
Bizkaiko BPGd	104,5	1,6	2024ko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	109,8	-1,0	2024ko aza.
Merkataritza-sozietate berriak	864	4,3	2024
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	116,7	-0,1	2024ko III. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (m <sup>2</sup> )	3.043,0	3,5	2024ko III. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaerien aire bidezko garraioa	493.080	4,8	2024ko abendua
Hegaldiak	3.971	5,2	2024ko abendua
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,5	-3,0	2024ko abendua

\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. \*\* Bilboko enpresetan. \*\*\* Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


**Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta**




**Erregistratutako langabezia**




**Afiliatuak**



**Erregistratutako kontratuak**



**Sozietate berriak**



**Hotel-gauak**

